

Donostian, 2018ko azaroaren 29an

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### HAURTXOKO ETA GAZTELEKUEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua araberan, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, azaroko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Joan den urriaren 30ean egindako Tokiko Gobernuaren Batzarrean Haurtxoko eta Gaztelekuen sareko zerbitzuak emateari buruzko kontratazio-espedientea onartu zen kontratua formalizatzen den egunetik 2019ko ekainaren 30era bitarteko egikaritze-epe batekin. Horrenbestez, berriz ere, zerbitzua eskola-ikasturtean zehar soilik mantentzen du eta udan ixtea planteatzen du.

Haurtxokoak eta gaztelekuak auzoetan adin txikiko eta nerabeentzat sozializatzeko eremuak dira, gure adin txikikoei doako aisialdia eskainiz. Modu horretan adin txikikoei aisialdi hezigarria izateko duten eskubidea bermatzen da, Haurraren Eskubideei buruzko Deklarazioaren 2. eta 7. printzipioetan jasotzen den moduan:

- “Baldintza sano eta normaletan handi dadin, fisiko, intelektual, moral, espiritual eta sozial mailan, askatasun eta duintasun osoz, babespen berezi bat, bai eta ahalbide nahiz erraztasunak eskaini behar zaizkio haurrari, legez edo beste edozein medioz. Honelako xedea defendatzen duten legeak onartzerakoan, haurraren goi mailako interesa irizpide nagusitzat hartu behar da”.
- “(...)Haurrak jolastu eta dibertitzeko aukera guztiak izan behar ditu, heziketaren helburuetara bideraturik: gizarteak eta botere publikoek indar egin behar dute eskubide honen gozamenari lehentasuna emateko”

Udaleko Gazteria saileko 2017-2020 plan estrategikoan, haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren sekzioak indartzeko markatutako erronka nagusietako baten barnean, haur eta nerabeek haurtxoko eta gaztelekuetan parte hartzea bultzatzeko zenbait ekintza planteatzen dira, horiek hobetu eta sustatzeko helburu ezberdinen artean, oporraldietako eskaintza garatzea planteatuz.

Modu horretan, gogoratu behar da 2019ko hurrengo udal aurrekontuetarako garatutako partaidetza prozesuan haurtxoko eta gaztelekuak urte osoan irekitzea planteatzen zuen hiritarren proposamen bat luzatu zela, eskolako oporraldiak barne. Haatik, hasierako bahean proposamen hori ezetsi egin zen, itxurazko arrazoirik eman gabe, eta horrenbestez herritarrek ez zuten aukerarik izan beren iritzia eman eta aipatutako ekimenaren aldeko babesa erakusteko.

Aurrez azaldutako arrazoiak direla medio, aurkezten dugu hurrengo:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Haurtxoko eta Gaztelekuen sareko zerbitzuak emateari buruzko kontratazio-espeditentia alda dezan, haurtxoko eta gaztelekuak urte osoan ireki daitezen, baita udako oporraldietan ere.

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.